2019. Urteko kudeaketa txostena

# GEROA

**2019. urtean 2019-2021 aldirako Plan Estrategikoa aurkeztu dugu, erakunde guztiek aho batez adostua, oraingoan ere berriz erakutsi baitute gure lurraldeko langileen pentsio publikoak osatzeko beharrarekin konpromiso irmoa hartu dutela.**

Horrela aurreztea etorkizuna da

Plan Estrategiko horretan ondoren adierazitako **5 ildo estrategikoak** ezartzen dira, datozen 3 urteetan hainbat ekintzaren bitartez garatuko direnak.

01 SENTSIBILIZAZIO- ETA ZABALKUNDE-PLANA

02 LANGABEZIA-PRESTAZIOAREN ANALISIA

03 GEROAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA ANALIZATZEA

04 KOTIZAZIO-HUTSUNEAK ESTALTZEKO BAKARKAKO EKARPENAK EGITEN UZTEA

05 ERRENTA MODUAN KOBRATZEAREN ALDEKO GOBERNU BATZORDEAREN KONPROMISOA INDARTZEA

### Oinarri teknikoen aldaketa

Gure kudeaketa-planarekin jarraituz eta egungo tasen ingurunea eta bizi-itxaropen gero eta handiagoa kontuan harturik, biziarteko errentei dagozkien hornidura matematikoak kalkulatzeko oinarri teknikoak aldatu ditugu. Horrez gain, aldaketak egin dira GEROA I Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Planaren Prestazio Arautegiaren 5., 6. eta 7. Artikuluetan eta Inbertsio Printzipioen Deklarazioan.

### Ekarpenak

Ekarpenen zenbatekoak eta langile kopuruak goranzko bidean jarraitzen dute, susperraldi ekonomikoa finkatzen ari den erakusgarri. Prestazioei dagokienez, nabarmentzen dugu errenta moduan ordaindutako erretiro-prestazio berrien batez besteko zenbatekoa 185,60 €-ko zenbatekora iritsi dela 2019. urtean.

### Emaitza ekonomikoak

Emaitza ekonomikoei dagokienez, urtea oso positiboa izan da aktibo-tipologia guztietan, nagusiki Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren politika protekzionistek sortu dituzten ziurgabetasunak gorabehera. “GEROA I” Planaren itzulkina % 9,79 izan da, hots, urteko batez besteko errebalorizazioa % 6,26 izan da 1996. urteaz geroztik, eta biziarteko errentak % 3,52 errebalorizatzea ahalbidetu du. Bestalde, “GEROA II” Planaren inbertsioek, zorroa askoz ere kontserbadoreagoa izanik, errentak % 1,5 errebalorizatzea ahalbidetu dute.

### Inguruarekiko konpromezua

Gizarteak ere kezkatzen gaitu eta Gipuzkoako enpresa berrien sorrera bultzatzen jarraitzen dugu. Zehazki, 2019. urtean bi StartUp berritan inbertitu da (CIN ADVANCED SYSTEMS eta MODFIE) eta beste mikrokreditu bat eman da. Gainera, inbertsio sozialki arduratsuaren aldeko konpromisoa mantentzen dugu, eta gure politiketan txertatu ez ezik, lankidetzan diharduguhura ezagutzera ematen, BGAE Federazioaren 35. urteurrena ospatzeko liburua idazten parte hartuz.

## Ekarpenak

**96,74 M€**

| ENPRESAK | SEKTOREAK |
|---|---|
| 8.794 | 20 |

| ATXIKITAKO ENPRESA BERRIAK | SARRERAKO MOBILIZAZIOAK |
|---|---|
| 2 | 1 |

BANAKA ATXIKITA DAUDEN ENPRESAK

1

SARRERAKO MOBILIZAZIOEN ZENBATEKOA

16.005 €

## Prestazioak

**55,09 M€**

| KAPITALEAN | ERRENTAN |
|---|---|
| 37,27 M€ | 17,81 M€ |

KOPURUA

2.753

ERRETIROA: **2004** / BALIAEZINTASUN HANDIA: **9** / EZINTASUN IRAUNKOR OSOA: **376** / HERIOTZA: **159** / EZINTASUN IRAUNKOR OSOA: **205**

PRESTAZIOAK KAPITAL GEHIGARRIAREKIN

424

GUZTIZKO ZENBATEKOA: **11.300.127 €**
KAPITAL GEHIGARRIA: **4.764.712 €**

| IRTEERAKO MOBILIZAZIOAK | IRTEERAKO MOBILIZAZIOEN ZENBATEKOA |
|---|---|
| 76 | 538.475 € |

| 2019KO ERRENTAREN GUTXIENEKO ZENBATEKOA | 2019KO ERRETIRO-ERRENTEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA |
|---|---|
| 175 € | 185,60 € |

## Inbertsioak

**1. Funtsaren dibertsifikazioa**

| EPE LABURRERA | ERRENTA FINKOA |
|---|---|
| %13,03 | %51,94 |

| ERRENTA FINKOA | BESTE ZENBAIT |
|---|---|
| %27,55 | %7,48 |

**2. Funtsaren dibertsifikazioa**

| ERRENTA FINKOA | EPE LABURRERA |
|---|---|
| %97,98 | %2,02 |

## Ondarea

| 1. FUNTSAREN ONDAREA | 2. FUNTSAREN ONDAREA |
|---|---|
| 2.189 M€ | 48 M€ |

| KAUDIMEN-MARJINA | ERAKUNDEAREN ONDARE GARBIA | KUDEATUTAKO ONDAREA GUZTIRA |
|---|---|---|
| %44 | 37 M€ | 2.274 M€ |

## 1. Funtsaren Errentagarritasuna

| Errentagarritasuna | 1 urte | 5 urte | 20 urte | 1996 ezkero |
|---|---|---|---|---|
| GEROA | %9,79 | %5,01 | %5,83 | %6,26 |
| KPI | %0,80 | %0,94 | %2,07 | %2,11 |
| BATEZ BESTEKO errenta finko mistoa *(INVERCOren datuak)* | %5,31 | %0,91 | %1,70 | %3,38 |

## Espero den errenta

**381 €/hilabete biziartean***

%63 Mozkinak | %37 Ekarpenak

*Aurreikuspena KPI + % 2ko errentagarritasunarekin egin da, diruaren balio eguneratuari dagokion zenbatekoa.

## Errenten balioa handitzea

| GEROAREN ALDI BATERAKO ERRENTAK | GEROAREN BIZIARTEKO ERRENTAK | KPI | PENTSIO PUBLIKOA |
|---|---|---|---|
| %1,50 | %3,52 | %0,80 | %0,90 |

## Gastuak

| ADMINISTRAZIO-GASTUAK | GORDAILUZAINTZA GASTUAK | BITARTEKARITZA-GASTUAK |
|---|---|---|
| %0,11 | %0,03 | %0,01 |

| HIRUGARRENEN KOMISIOAK | TXANDAKATZE-RATIOA | ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA |
|---|---|---|
| %0,26 | %122,92 | 1 |

## Kolektiboa

2019AN EKARPENAK DITUZTEN BAZKIDEAK

**114.627**

+%1,22

Hau da, Gipuzkoako langile guztien % 37



| EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|
| %34 | %66 |

| BATEZ BESTEKO ADINA | 2019AN EKARPENIK EZ DUTEN BAZKIDEAK | ERRENTAN KOBRATZEN ARI DIREN BAZKIDEAK | ERRENTAN KOBRATZEN ARI DIREN ONURADUNAK |
|---|---|---|---|
| 43 urte | 162.040 | 2.531 | 607 |



· Bidasoaldea: **10.137**
· Debabarrena: **8.275**
· Debagoiena: **9.217**
· Donostia: **21.222**
· Donostialdea: **10.871**
· Goierri: **8.584**
· Oarsoaldea: **9.832**
· Tolosaldea: **7.542**
· Urola Erdia: **5.871**
· Urola Garaia: **4.793**
· Urola Kosta: **6.498**
· Besteak: **11.785**